



PRENTSA-OHARRA

25 urte mendizale gisa eta beste horrenbeste Everestera igo zenetik: Pitxi Eguillorrek bere esperientzien berri emango du, astelehenean, proiektzio baten bidez, Sanduzelaiko Civivoxean

Martxoaren 6ra bitarte gauzatuko den Mendi eta abenturaren III. astea hastear da, hitzaldi, ikus-entzunezko eta liburu baten aurkezpenarekin

Astelehenean hasiko Mendi eta abenturaren III. astea, Iruñeko Udalak Civivox sarean antolatzen duen jarduera-zikloa, Gaztaroa Mendi Taldearekin elkarlanean. Zikloan proiektzioak eta saio teorikoak tartekatuko dira, eta Aragoiko Pirinioen biztanle galerari buruzko argazki-liburu bat aurkeztuko da ere.

Guztira bost topaketa izango dira, guztiak Sanduzelaiko Civivoxean, 19:30ean. Sarrera librea izango da, gonbidapenak ordubete lehenagotik hartuta (gehienez bi gonbidapen banatuko dira pertsona bakoitzeko). Zikloa datorren asteko astelehenetik ostegunera izango da, eta martxoaren 6an, asteartearekin, amaituko da.

Lehenengo saioa datorren otsailaren 26an izango da, astelehenarekin, mendizale eta goi-mendi gidari (UIAGM) Juan María Eguillor "Pitxi"ren eskutik (Iruña, 1948ko maiatzaren 5a). Bera izan zen, Patxi Fernándezekin batera, Everestera igo zen lehen nafarra, 1992an. Hortaz, aurten espedizio horren 25. urteurrena da. Oso gazte piztu zitzaion mendizaletasuna, eta orduz geroztik Anaitako Pirinioetako Zeharkaldia antolatu du; Nepalen izan da (Dhaulagiri, Everest, Cho Oyu...), Pakistanen (Gasherbrum II...), Perun, Argentinan, Laponian, Txinan, Alaskan (McKinley), Tanzanian (Kilimanjaro)... Hortaz era askotako esperientziak kontatu ditzake, baita arrisku handiko istripuak ere, Nepalen 2016an gertatutakoa bezalakoa.

Eguillor Pirinioei buruzko gida baten egilea da baita ere, eta astelehenerako proiektzio komentatu bat prestatu du *Entre los Pirineos y el Himalaya* izenburupean. Argazki digitalizatuek osatuko dute proiektzioa, eta horien bidez alpinistaren eta haren bidaia ugarien ibilbidea ezagutu ahal izango dira. Eguillorrek haren bizipenei buruz hitz egingo du bertaratzen direnekin, eta azalduko die alpinismoak bere nortasunean duen eragina.

Asteartean, Patagonia eta glaziarrak

1. orrialdea, (e)tik 3





Incógnita Patagoniako taldeak –besteak beste, National Geographic Societyk bultzatutako espedizioak– egiaztatu zuen Txileko eskualde horretan izotz masen atzerakada drastikoa ematen ari zela. Galera azaleraren % 20an kokatzen zen, azken 50 urteetan. Espedizionarioek Cloueko izotz-zelaia bisitatu zuten, Txileko Suaren Lurraldean hegoalderago dagoena, Hoste izeneko irlan. 227 metro karratuko eremu zabala da, gehiena oraindik ere esploratu gabea.

Espedizio horretako bi kidek, Ibai Ricok eta Eñaut Izagirrek, zer nolako esperientzia bizi izan zuten azalduko dute, glaziarren forma eta metaketa kartografiatzen, irlaren baso itxi, glaziar, tontor eta ertzak mendebaldetik ekialdera gurutzatuz, 30 kilometrotan barna. Hitzaldia euskaraz izango da, otsailaren 27an, asteartearekin, Sanduzelaiko Civivoxean. Zeharkaldi korapilatsua horren nondik norakoak azalduko dituzte. Patagonia osoan, Cloue da Antartidako haizeak gogorren jotzen duen eremua. Horregatik espedizioak aurre egin behar izan zien ekaitzei, haizeari eta baldintza aldakorrei, ia erabat ezezaguna zitzaien ingurune batean.

Zikloko hurrengo jarduera Aragoiko Pirinioen biztanle galerari buruzko liburu baten aurkezpen izango da, eta martxoaren 1ean eta 6an proiektzio bana egongo dira. Lehenengoan, *Vespa Extreme Dakar* izenekoan, elkartasun irizpideekin egindako nazioarteko bidaiak izango dira hizpide, gero eta ohikoagoa den jarduera bat. *Lhotse, 8516 m. Entre el cielo y la tierra* saioan, Javier Camacho argazkilari eta alpinistak munduko laugarren tontorrik altuenera oxigenorik gabe egindako igoerari buruz hitz egingo da.

MENDI ETA ABENTURAREN III. ASTEA OTSAILAK 26 – MARTXOAK 6

Gaztaroa Mendi Taldearekin elkarlanean

Sanduzelaiko Civivoxa.. 19:30

Sarrera librea da; gonbidapena hartuta jarduera hasi baino ordubete lehenagotik. Pertsona bakoitzak, gehienez, bi gonbidapen hartzen ahalko ditu.

TOPAKETAK ETA PROIEKZIOAKETA FILM-EMANALDIK

Otsailak 26, astelehena

- PROIEKZIOA
- *Entre los Pirineos y el Himalaya*
- Hizlaria: Pitxi Eguillor
- 25 urteko esperientzia mendizale gisa, 25 urte Everestera igo zenetik

Otsailak 27, asteartea

- PROIEKZIOA
- *Incógnita Patagonia* (euskaraz)
- Hizlariak: Ibai Rico eta Eñaut Izagirre
- Esplorazioa, alpinismoa eta glaziarren kartografia uztartzen dituen proiektua

2. orrialdea, (e)tik 3





Otsailak 28, asteazkena

- LIBURU-AURKEZPENA
- *Piedras con alma*
- Hizlaria: Bakartxo Aniz
- Aragoiko Pirinioen biztanle galera

Martxoak 1, osteguna

- PROIEKZIOA
- *Vespa Extreme Dakar*
- Elkartasunezko bidaia, ahaztutako gaixotasunetan barna
- Hizlaria: José Antonio Fernández

Martxoak 6, asteartea

- PROIEKZIOA
- *Lhotse, 8516 m. Entre el cielo y la tierra*
- Javier Camacho
- Munduko laugarren tontorrik altuenera oxigenorik gabe egindako igoera

Iruñean, 2018ko otsailaren 22an

